

“XI.  
ERREPORTARI  
GAZTE SARIA”

Andoaingo Udala  
Euskararen  
Normalkuntzarako  
Lansaila



“XI.  
ERREPORTARI  
GAZTE SARIA”



**Sariaren helburua:** Andoingo eta inguruko herrietako gazteen artean komunikazio idatzia euskaraz zuzen ez ezik txukun eta egoki ere egiteko gaitasuna eta kazetaritza-zaletasuna bultzatzea da Sari honen helburua. Horrela, bada, saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: idazketaren egokitasuna, estiloa, datu-bilketa eta zailtasuna.

**Lehiaketako partehartzaileak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Astigarraga, Amasa-Villabona, Hernani, Larraul, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil edo Zizurkilen bizi diren edo ikasten duten 18 urte bitarteko neska-mutilek, hau da, 2008. urteko ekainaren 15ean oraindik 18 urte baino gehiago izango ez dituztenek parte har dezakete lehiaketa honetan. Erreportajearen egilea pertsona bakarra edota taldea izan daiteke, eta bakoitzak nahi adina erreportaje aurkez ditzake.

**Erreportajearen gaia:** Aurreko puntuan aipatu diren Beterri-Aiztondo eta Buruntzaldeako hamar herri horietako gertakari bati edo batzuri buruzkoa izan beharko du erreportajeak. Hori bai, edozein garaitakoa eta edozein alorretakoa izan daiteke gertakaria, hau da, berdin iraganeko urteetan gertaturikoa, berdin gaur eguneko, eta edozein gauzari buruzkoa, baina beti ere nahitanahiez aipatutako hamaika herri horietakoren batekin edo batzurekin zerikusteko zuzena duena.

**Lanaren aurkezpena:** Erreportajeek gutxienez ere 3 orrialde izango dituzte, eta DIN A-4 neurrian aurkeztuko dira makinaz edo ordenadorez idatzita eta baita diskete batean ere. Gainera, norberaren esku uzten da argazkiak eta/edo marrazkiak ere aurkeztea, nahiz eta hori ezinbestekoa ez izan.

Andoain, 2008ko martxo

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta oinarriak interpretatzerakoan zalantzarik balego Epaimahaiaren iritzia nagusituko da.



Andoingo Udalak Beterri-Aiztondoko eta Buruntzaldeko gazteen arteko "Erreportari Gaztea" izeneko erreportaje lehiaketarako deialdia egiten du, ondorengo hauek direlarik Sariaren oinarriak.

Lan bakoitzaren lau kopia entregatu beharko dira 2008. urteko ekainaren 13ra bitartean, egun hau barne, Andoingo Udaletxeko Euskara Zerbitzuan. Lanak aipatu Euskara Zerbitzura bertara joanda, eskura alegia, entrega daitezke, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:00etara bitartean, edota bestela postaz bidalita honako helbide honetara:

**Andoingo Udala  
Euskara Zerbitzua  
"Erreportari Gaztea"  
20140 Andoain**

Lanekin batera sobre itxi bat aurkeztu beharko da. Sobrearen barruan lanaren egile(ar)en izen-deiturak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoaren helbidea eta adina jarri beharko dira. Sobrearen kanpoko aldean, berriz, lanaren izenburua. Lanetan bertan ez da egilearen daturik jarri behar.

**Saria eta argitalpena:** "Erreportari Gaztea" sariak hiru lan sarituko ditu: Lehendabizikoari 360 euro eta orogari bat emango zaizkio; Bigarrenari 180 euro eta hirugarrenari, berriz, 90 euro.

Epaimahaiak bere esku izango du *aipamen berezia(k)* egiteko aukera.

Saria hutsik utzi ahal izango du Epaimahaiak, baldin eta aurkeztutako lanek, bere iritzian, behar adina kalitaterik ez badute.

Saritutako erreportajea argitaratu egingo da. Halaber, aurkeztutako erreportajeen artean Epaimahaiaren iritzian egokienak direnak ere argitaratu egingo dira, nahiz eta sarituak ez izan. Beraz, Udalak eskubidea du lehiaketara aurkeztutako edozein erreportaje argitaratzeko, baina ez zaio horregatik jabetza-eskubiderik eskatu ahal izango.

2008. urteko udazkenean emango da ezagutzera Epaimahaiaren erabakia, eta saria ere urte berean emango da.

**Epaimahaia:** Kazetaritzan adituak diren pertsonak osatuko dute Epaimahaia, eta bere erabakia apelaezina izango da.